

## ASTEASUKO UDALA

*Asteasuko udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen ordenantza.*

2011ko azaroaren 30 ean Udaltzatza Osoak «Asteasuko udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen ordentzaren» hasierako onepenari, jendeaurreko epean alegaziorik ez zaionez tarteratu osoki bera argitaratzen da, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2. artikuluan xedatutakoa beteaz, aipatu ordentantza apirilaren 2ko Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 65.2. artikuluan ezarritako epea burutzen denean:

## AURKIBIDEA

- Zioen azalpena.
1. artikulua. Xedea.
  2. artikulua. Udal etxebizitza tasatuaren kontzeptua.
  3. artikulua. Motak.
  4. artikulua. Asteasuko udal etxebizitza tasatuen eskakizun orokorrak.
  5. artikulua. Erregimen orokorreko udal etxebizitza tasatuen eskakizun zehatzak.
  6. artikulua. Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen eskakizun zehatzak.
  7. artikulua. Udal etxebizitza tasatuak sustatzeko eta lagatzeko erak.
  8. artikulua. Udal etxebizitza tasatuaren onuradunen eskakizuna: Etxebizitza-beharra.
  9. artikulua. Bizilekua edo lana Asteasun udalerrian izateko eskakizuna.
  10. artikulua. Kalifikazioa.
  11. artikulua. Udal etxebizitza tasatu kalifikatzearen ondorioak.
  12. artikulua. Lehenetsunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak.
  13. artikulua. Kontratuen oniritziak.
  14. artikulua. Erregistroko inskripzioa.
  15. artikulua. Udal-etxebizitza tasatu adjudikatzeko prozedura.
  16. artikulua. Udal-etxebizitza tasatuen eskatzaileen erregistroa.
  17. artikulua. Bizilekua izateko betebeharrak.
  18. artikulua. Okupatuta ez dauden etxebizitzak desjabetzea.
- Lehen xedapen gehigarria. Eraginaren mugak, balorazioan.
- Bigarren xedapen gehigarria. Udal etxebizitza tasatuaren erregistroa.
- Hirugarren xedapen gehigarria. Aplikazio subsidiarioa.
- Lehen azken xedapena. Araudi gehigarria.
- Bigarren azken xedapena. Indarrean sartzea.

## AYUNTAMIENTO DE ASTEASU

*Ordenanza reguladora de las viviendas tasadas de Asteasu.*

No habiéndose presentado alegaciones al acuerdo de aprobación inicial adoptado por el Ayuntamiento Pleno, en Sesión Ordinaria celebrada el día 30 de noviembre de 2012, de la «Ordenanza municipal reguladora de las viviendas tasadas de Asteasu», se publica íntegramente la misma a efectos de dar cumplimiento a lo preceptuado en el artículo 70.2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, entrando en vigor la mencionada Ordenanza, una vez transcurrido el plazo previsto en el artículo 65.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local:

## ÍNDICE

- Exposición de motivos.
- Artículo 1. Objeto.
- Artículo 2. Documentos de la Ordenanza y alcance normativo de los mismos.
- Artículo 3. La Vivienda Tasada Municipal y sus anejos. Definición y modalidades.
- Artículo 4. Condiciones materiales generales reguladoras de la Vivienda Tasada Municipal y de sus anejos.
- Artículo 5. Condiciones económicas específicas de la Vivienda Tasada Municipal de Régimen General (VTMRG) y de sus anejos.
- Artículo 6. Condiciones económicas específicas de la Vivienda Tasada Municipal de Régimen Especial (VTMRE) y de sus anejos.
- Artículo 7. Condiciones de promoción de la Vivienda Tasada Municipal, así como de, en su caso, los anejos de la misma.
- Artículo 8. La calificación de las viviendas tasadas municipales y de, en su caso, los anejos de las mismas.
- Artículo 9. Condiciones de adjudicación de la Vivienda Tasada Municipal, así como de, en su caso, los anejos de la misma.
- Artículo 10. Visado de los contratos de adjudicación.
- Artículo 11. Registro de solicitantes de vivienda tasada.
- Artículo 12. Tanteo y retracto.
- Artículo 13. Derecho de realojo.
- Artículo 14. Expropiación de viviendas no ocupadas.
- Artículo 15. Procedimiento de adjudicación de la vivienda tasada municipal.
- Artículo 16. Registro de solicitantes de vivienda tasada municipal.
- Artículo 17. Obligación de residencia.
- Artículo 18. Expropiación de viviendas no ocupadas.
- Disposición adicional primera. Limitaciones en valor de repercusión.
- Disposición adicional segunda. Registro de Vivienda Tasada Municipal.
- Disposición adicional tercera. Aplicación subsidiaria.
- Disposición final primera. Normativa Supletoria.
- Disposición final segunda. Entrada en vigor.

## ZIOEN AZALPENA

Ordenantza honen xedea da Asteasuko udal etxebizitza tasatuak babesteko erregimena arautzen duten baldintzak finkatzea.

Ordenantza hau prestatu da, besteak beste, jarraian azaltzen diren bi premisa hauengatik.

Alde batetik, gure iritzi Asteasun dagoen problematika, beste herrietan bezala, etxebizitzaren prezioarekin dago lotuta batik bat; populazioaren zati handi batek ezin du etxebizitza eskuratu etxebizitzaren merkatuan normalean eskaintzen diren baldintzetan, garesti daude.

Bestalde, guk uste problematika horri erantzuteko, prezio hori murriztuko duten neurriak definitu behar direla, gutxienez planteatuko den etxebizitza-eskaintzaren zati baterako.

Hori guztia horrela izanik, Udalak komeni iritzi dio Ordenantza hau prestatzeari, besteak beste jarraian aipatzen diren bi helburu osagarri hauek erdiesteko.

Lehenik eta behin, populazioaren etxebizitza-beharrari erantzun egokia emateko, arazoizko prezioetan.

Bigarrenik, eta zehatzago esanda, udal etxebizitza babes-tuak arautzeko eta, hala, pertsona jakin batzuen beharrei erantzuteko, hain zuzen ere etxebizitza librea eskuratzeko behar adina diru-sarrerak izan ez eta, aldi berean, babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko indarrean dauden xedapen legalek ezartzen dituzten diru-sarrera maximoak gainditzen dituzten pertsonen beharrei.

Bai premisak bai helburuak bat datoz Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Zioen Azalpenetan agertzen den diagnostikoarekin. Honela dio:

«Etxebizitzak gero eta garestiago daude, eta herri honetan lur-eskasia dago betidanik; horrek, beraz, inoiz baino beharrezkoago egiten du, etxebizitza babestuen kopuru handiak egin daitezen sustatzea, populazioaren oso talde zabaletan, eta batez ere gazte-jendearen artean, zer-nolako erosmen-ahalmena dagoen erreparatuta, era horretako etxebizitza baita beren beharri zehazki egokitzeko den bakarra prezioz. Etxebizitzaren politikak, ikuspegi sozial batetik lan egin nahi badu, etxebizitza babestuen eskaintza handitu behar du nabarmen; ez dago beste biderik».

Eta baita ere Lege horretan bertan agertzen diren xedapenenkin, hain zuzen ere etxebizitza babestuen esparru juridiko baten oinarriak arautzen dituztenekin. Esparru juridiko hori babes ofizialeko etxebizitzaren esparru tradizionala eta eskusiboa baino zabalagoa da eta, testuinguru honetan, etxebizitza babestuentzako beste udal figura batzuk arautzea aurreikusten da.

Testuinguru horrek eraginda, Ordenantza hau prestatu da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko xedapenen arabera eta, horien artean, besteak beste, Legeko zortzigarren Xedapen Gehigarriko 4, 5 eta 6. atalen arabera.

Ordenantzan aurkezten diren proposamenek, artikuluetan zehar azaltzen direnek, adierazitako helburuak lortzea dute xede. Eta horretarako, besteak beste, gai hauek zehazten dira: Udal etxebizitza tasatuen modalitate desberdinak (3. art.); horien lege eta ordenamendu baldintzak (4. art.); etxebizitza arautuen modalitateen baldintza ekonomikoak (5 eta 6. art.); horiek sustatzeko, kalifikatzeko eta adjudikatzeko baldintzak (7, 8 eta 9. art.); horiek lehentasunez eskuratzeko eta atzera eskuratzeko eskubideak Administrazioaren alde eta eskubide horiek erabiltzeko baldintzak.

## EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La determinación de las condiciones reguladoras del régimen de protección de la vivienda tasada municipal de Asteasu constituye el objetivo de esta Ordenanza.

Su formulación responde a, entre otras, las dos premisas que se exponen a continuación.

Por un lado, la consideración de que la problemática existente en Asteasu, al igual que en otros municipios, está en gran medida relacionada con el precio de la vivienda, que hace que una parte importante de la población no pueda acceder a ella en las condiciones habituales de oferta de la misma en el mercado inmobiliario, dada su carestía.

Por otro, la idea de que la respuesta a esa problemática requiere la definición de medidas que limiten dicho precio, cuando menos en lo referente a una determinada parte de la oferta a plantear en la materia.

En esas circunstancias, el Ayuntamiento ha considerado conveniente la formulación de esta Ordenación en aras a la consecución de, entre otros, los dos objetivos complementarios que se exponen a continuación.

En primer lugar, dar respuesta a las necesidades de vivienda adecuada y a precios asequibles de la población.

En segundo lugar y más en concreto, la regulación de una tipología de vivienda protegida de carácter municipal que dé respuesta a las necesidades de las personas cuyos ingresos son insuficientes para acceder a la vivienda libre, al tiempo que exceden de los ingresos máximos establecidos en las disposiciones legales vigentes para acceder a la vivienda de protección oficial.

Tanto aquellas premisas como estos objetivos están en sintonía con el diagnóstico contenido a ese respecto en la Exposición de Motivos de la Ley de Suelo y Urbanismo de 30 de junio de 2006, expresado en los siguientes términos:

«Los altos precios de la vivienda y la escasez crónica de suelo del país hacen más necesario que nunca el fomento de un importante volumen de vivienda protegida, que por la capacidad adquisitiva de importantes capas de población, y sobre todo población joven, es la única vivienda que se adapta en precio a sus necesidades. Una política de vivienda con enfoque social sólo puede pasar por el incremento significativo de esta oferta de vivienda protegida».

Y también con las previsiones contenidas en esa misma Ley, reguladoras de las bases de un marco jurídico de la vivienda protegida de mayor extensión que la tradicional y exclusiva vivienda de protección oficial y, en ese contexto, prevé la regulación de otras figuras municipales de viviendas protegidas.

Promovida en ese contexto, esta Ordenanza se elabora de conformidad con las previsiones establecidas en la Ley de Suelo y Urbanismo de 30 de junio de 2006 y, dentro de ella y entre otros, los apartados 4, 5, 6, etc. de la Disposición Adicional Octava de la misma.

Las propuestas contenidas en la misma, expuestas a lo largo de su articulado tienen como fin dar respuesta a los indicados objetivos. Y con ese fin, se determinan, entre otras, cuestiones como las siguientes: Distintas modalidades de vivienda tasada municipal (art. 3); las condiciones jurídicas y de ordenación de las mismas (art. 4); las condiciones económicas de las distintas modalidades de vivienda reguladas (artículos 5 y 6); las condiciones de promoción, calificación y adjudicación de las mismas (artículos 7, 8 y 9); su sujeción a los derechos de tanteo y retracto a favor de la Administración y las condiciones de ejercitación de los mismos.

### 1. artikulua. Xedea.

Udal ordenantza honen xedea da Asteasu udalerrian Udal Etxebizitza Tasatuen (UET) babes publikoko erregimena ezartzea.

Asteasu udalerriko Udal Etxebizitza Tasatuen (UET) babes publikoko erregimena ezartzen da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak figura honentzat xedatutakoa garatzeko.

### 2. artikulua. Udal etxebizitza tasatuaren kontzeptua.

Asteasu udalerrian Udal Etxebizitza Tasatuak (UET) izango dira Udalak hala kalifikatzen dituen etxebizitzak, salmentako edo errentako prezioa mugatua dutelako eta Ordenantza honetako gainerako eskakizunak betetzen dituztelako.

Udal Etxebizitza Tasatu (UET) izaera etxebizitza bakoitzari lotutako garajeek eta trastelekuek ere badute.

UETek horien titularren edo maizterren etxebizitza ohikoa eta iraunkorra izan beharko dute, ezingo direlarik inolaz ere beste pertsona batzuei laga, hutsik eduki, bigarren etxebizitzetarako erabili edo bizitegitarako ez den beste erabileraren bat eman.

UETak sustatu daitezke hirigintzako plangintzan espresuki erabilera horretarako kalifikatzen diren lurzoruetan eta prezio aldetik mugarik gabeko bizitegi-lurzoruetan.

### 3. artikulua. Motak.

Asteasuko Udal Etxebizitza Tasatuak bi motatakoak izan daitezke:

— Erregimen Orokorreko Udal Etxebizitza Tasatuak (EQUET).

— Erregimen Bereziko Udal Etxebizitza Tasatuak (EBUET).

Erregimen Bereziko Udal Etxebizitza Tasatuek (EBUET) Babes Ofizialeko Etxebizitza Tasatuak ordeztuz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak ezarritako estandar minimoak betetze aldera.

Udal Etxebizitza Tasatuak izango dira, bai Erregimen Orokorrekoak bai Erregimen Berezikoak, lokalak etxebizitza bihurtzeko jardueretatik sortzen diren etxebizitzak, haien erregimen juridikoa beren ordenantza zehatzean arautzen delarik.

### 4. artikulua. Asteasuko udal etxebizitza tasatuen eskakizun orokorrak.

Asteasuko Udal Etxebizitza Tasatuek ezingo dute eduki 120 m<sup>2</sup> (t)-ko azalera erabilgarri baino handiagoa.

UET guztiek aparkaleku bat eduki dezakete lotuta, 30 m<sup>2</sup> (t)-ko azalera erabilgarri maximoarekin, eta, egonez gero, trasteleku bat ere eduki dezakete lotuta, 10 m<sup>2</sup> (t)-ko azalera erabilgarri maximoarekin. Lokal erantsi horien lotutasuna Jabetza Erregistroan inskribatu beharko da.

UETek, beren garaje eta trastelekuekin, lehendik dauden eraikinetakoetan kalifikatutakoek izan ezik, Autonomia Erkidegoko Babes Ofizialeko Etxebizitza Tasatuentzat (BOET) ezarritako eskakizun teknikoak eta diseinuzkoak bete beharko dituzte eta, horiek ezarrita ez dauden bitartean, erregimen orokorreko BOEei eskatzen zaizkienak.

Asteasuko Udalak eskakizun osagarriak ezarri ahal izango ditu, hitzarmenen eta/edo ordenantzen bidez.

### Artículo 1. Objeto.

La presente Ordenanza municipal tiene por objeto establecer el régimen de protección pública de la Vivienda Tasada Municipal (VTM) del municipio de Asteasu.

El régimen de protección pública de la Vivienda Tasada Municipal (VTM) del municipio de Asteasu se establece en desarrollo de lo establecido para esta figura en la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

### Artículo 2. Concepto de vivienda tasada municipal.

En el municipio de Asteasu tendrán la consideración de Viviendas Tasadas Municipales (VTM) las viviendas que, por tener limitado su precio de venta o alquiler y cumplir con los demás requisitos establecidos en esta Ordenanza, sean calificadas así por el Ayuntamiento.

El carácter de Vivienda Tasada Municipal (VTM) se extiende a los garajes y trasteros vinculados a cada vivienda.

Las VTM deberán constituir el domicilio habitual y permanente de sus titulares o inquilinos, sin que bajo ningún concepto puedan cederse a otras personas, mantenerse vacías o destinarse a segunda residencia o cualquier otro uso no residencial.

Las VTM podrán promoverse tanto en suelos expresamente calificados por el planeamiento urbanístico para este uso como en suelos residenciales no sometidos a limitación de precio.

### Artículo 3. Clases.

Las Viviendas Tasadas Municipales de Asteasu podrán ser de dos clases:

— Viviendas Tasadas Municipales de Régimen General (VTMG).

— Viviendas Tasadas Municipales de Régimen Especial (VTME).

Las Viviendas Tasadas Municipales de Régimen Especial (VTME) podrán sustituir a las Viviendas de Protección Oficial Tasadas a efectos de cumplimiento de los estándares mínimos establecidos en la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

Pertenecerán a la clase de Viviendas Tasadas Municipales tanto de Régimen General como de Régimen Especial, las viviendas resultantes de actuaciones de transformación de locales en vivienda, cuyo régimen jurídico se regula en su ordenanza específica.

### Artículo 4. Requisitos generales de la vivienda tasada municipal de Asteasu.

Las Viviendas Tasadas Municipales de Asteasu no podrán disponer de más de 120 m<sup>2</sup> (t) útiles de superficie.

Todas las VTM podrán tener una plaza de aparcamiento vinculado, con una superficie útil no superior a 30 m<sup>2</sup> (t) y podrán tener, en su caso, un trastero vinculado, con una superficie útil no superior a 10 m<sup>2</sup> (t) útiles. El carácter vinculado de estas dependencias anejas se deberá inscribir en el Registro de la Propiedad.

Las VTM, con sus garajes y trasteros, salvo las calificadas en edificaciones preexistentes, deberán cumplir los requisitos técnicos y de diseño que se establezcan para las Viviendas de Protección Oficial Tasadas (VPOT) de la Administración autonómica y, mientras éstos no se establezcan, los exigibles a las VPO de Régimen General.

El Ayuntamiento de Asteasu podrá establecer requisitos complementarios a través de convenios y/o ordenanzas.

Lokala etxebizitza bihurtzen bada, bete beharreko eskakizun teknikoak eta diseinuzkoak dagokion ordenantza arautzailean hartarako xedatzen direnak izango dira.

Familia ugariantzat eta minusbaliatuentzat izango diren etxebizitza-kopurua udal etxebizitza tasatuen erregimena kalifikatzeko akordioan finkatuko dira.

*5. artikulua. Erregimen orokorreko udal etxebizitza tasatuen eskakizun zehatzak.*

UET guztientzat ezarritako eskakizun orokorrez gain, erregimen orokorreko UETek (EOUET) honako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

A) EOUET eskuratzeko:

1. EOUETen salmenta-prezio maximoa, haiei lotutako garajeak eta trastelekuak barne, lehenengo nahiz ondorengoko transmisioetan, ezingo da izan 1,65-eko indizea baino handiagoa, hauentzat indarrean dagoen prezio maximoarekiko: Udalaren behin-behineko Kalifikazioa lortzean Erregimen Orokorreko UETei buruz edozein administraziok azalera-eskubidearen bidez eta Udalak laga ondoren, sustatutakoentzat, enpresa publikoek nahiz partikularrek sustatutakoak barne. Sustapen pribatuko etxebizitzak badira, 1,75eko indizeraino iritsi ahal izango da, hor sartzen direlarik bizitegitarako hiri-lurzoru finkatu jakin batzuetan dauden lokalei etxebizitza-erabilerara emateko baimena arautzen duen Ordenantza aplikatuz udal-baimenetatik datozenak.

2. EOUETen onuradunen gehienezko diru-sarrera ponderatuak Euskadiko araudiak xedatutakoaren arabera kalkulatu dira eta ezingo dute izan 1,2-ko indizea baino handiagoak Autonomia Erkidegoko erregimeneko etxebizitza tasatuak eskuratzeko indarrean dauden gehienezko diru-sarrererekiko.

B) Errentamendu-erregimenean okupatzeko:

1. Errentan eskuratzeko, EOUETen urteko errenta horien salmenta-prezio maximoaren %2,5ekoa izango da, esleipendunaren bizikidetz-unitatearen diru-sarreraren arabera, horren zenbatekoa zehazteko araudi autonomikoan horretarako ezarrita dauden arauak aplikatuz.

EOUETen onuradunen gutxieneko diru-sarrera ponderatuek, erosketan nahiz errentan, ezingo dute izan etxebizitza sozialak (erregimen Bereziko BOEK) eskuratzeko ezarrita dauden gehienezko diru-sarrerak baino txikiagoak.

*6. artikulua. Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen eskakizun zehatzak.*

UET guztientzat ezarritako eskakizun zehatzez gain, erregimen bereziko UETek (EBUET) honako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

1. EBUETen salmenta-prezio maximoa, haiei lotutako garajeak eta trastelekuak barne, BOETei aplikatu behar zaien Autonomia Erkidegoko araudiak xedatutakoa izango da. Nolanahi ere, ezingo da izan 1,65-eko indizea baino handiagoa, udalaren kalifikazioa lortzean Erregimen Orokorreko UETei buruz indarrean dagoen prezio maximoekiko.

2. Errentan eskuratzeko, EBUETen urteko errenta horien salmenta-prezio maximoaren %2,5ekoa izango da, esleipendunaren bizikidetz-unitatearen diru-sarreraren arabera, horren zenbatekoa zehazteko araudi autonomikoan horretarako ezarrita dauden arauak aplikatuko direlarik.

EBUETen onuradunen gehienezko diru-sarrera ponderatuek ezingo dute izan Autonomia Erkidegoko erregimeneko etxebizitza tasatuei aplika dakiekeen araudian horretarako aurreikusten diren diru-sarrerak baino handiagoak.

En el caso de transformación de local en vivienda, los requisitos técnicos y de diseño a cumplir serán los que quedan estipulados al efecto por la correspondiente Ordenanza reguladora

El número de viviendas a destinar a familias numerosas y a discapacitados vendrá fijado en el acuerdo de calificación del régimen de las viviendas tasadas municipales.

*Artículo 5. Requisitos específicos de las viviendas tasadas municipales de régimen general.*

Además de los requisitos establecidos con carácter general para la totalidad de las VTM, las VTM de Régimen General (VTMG) deberán cumplir los siguientes:

A) Para adquisición de VTMG:

1.º El precio máximo de venta de las VTMG, incluidos sus garajes y trasteros vinculados, tanto en primera como en posteriores transmisiones, no podrá superar el índice 1,65 respecto al precio máximo de las VPO de Régimen General vigente en el momento de obtención de la Calificación provisional municipal para las promovidas por cualquier Administración, incluidas las promovidas por empresas públicas o particulares en virtud de un derecho de superficie constituido y cedido por el Ayuntamiento. En el caso de las viviendas de promoción privada se podrá alcanzar el índice 1,75; incluidas las que provengan de autorizaciones municipales en aplicación de la Ordenanza reguladora de la autorización de uso de vivienda en locales ubicados en determinados ámbitos consolidados de suelo urbano residencial.

2.º Los ingresos máximos ponderados de los beneficiarios de las VTMG, calculados conforme a lo dispuesto en la normativa autonómica vasca, no podrán ser superiores al índice 1,2 respecto de los ingresos máximos vigentes para acceder a las viviendas tasadas de régimen autonómico.

B) Para ocupación en régimen de arrendamiento:

1.º En caso de alquiler, la renta anual de las VTMG será del 2,5% del precio máximo de venta de las mismas, en función de los ingresos de la unidad convivencial adjudicataria, aplicándose para la determinación de su importe las reglas establecidas al efecto por la normativa autonómica.

Los ingresos mínimos ponderados de los beneficiarios de las VTMG, tanto en compra como en arrendamiento, no podrán ser inferiores a los ingresos máximos establecidos para acceder a las viviendas sociales (VPO de Régimen Especial).

*Artículo 6. Requisitos específicos de las viviendas tasadas municipales de régimen especial.*

Además de los requisitos establecidos para el conjunto de las VTM, las VTM de Régimen Especial (VTME) deberán cumplir los siguientes:

1.º El precio máximo de venta de las VTME, incluidos sus garajes y trasteros vinculados, será el establecido por la normativa autonómica de aplicación para las VPOT. En todo caso, no podrán superar el índice 1,65 respecto al precio máximo de las VPO. de Régimen General vigente en el momento de obtención de la Calificación municipal.

2.º En caso de alquiler, la renta anual de las VTME será del 2,5% del precio máximo de venta de las mismas, en función de los ingresos de la unidad convivencial adjudicataria, aplicándose para la determinación de su importe las reglas establecidas al efecto por la normativa autonómica.

Los ingresos máximos ponderados de los beneficiarios de las VTME, no podrán ser superiores a lo previsto al efecto por la normativa aplicable a las viviendas tasadas de régimen autonómico.

3. EBUETen onuradunen diru-sarrera ponderatuak Euskadiko araudiak xedatutakoaren arabera kalkulatu dira eta ezingo dute izan 1,3-ko indizea baino handiagoak Erregimen Orokorreko BOEk eskuratzeko indarrean dauden gehienezko diru-sarrerekiko.

4. EBUETen onuradunen gutxieneko diru-sarrera ponderatuek ezingo dute izan etxebizitza sozialak (erregimen Bereziko BOEk) eskuratzeko ezarrita dauden gehienezko diru-sarrerak baino txikiagoak.

*7. artikulua. Udal etxebizitza tasatuak sustatzeko eta lagatzeko erak.*

Asteasuko UETak, edozein motatakoak direla ere, sustatu ditzakete Udalak, enpresa publikoek nahiz pribatuek, Udalak eraikitze azalera-eskubidea laga baldin badiete betiere, beste administrazio publiko batzuek edo horien entitate instrumentalek edo kooperatiba edo enpresa pribatuek, horienak diren sailetan.

Udalak edo Udalaren aldetik eraikitze azalera-eskubidea laga zaien enpresa publikoek edo pribatuek sustatutako UETak lagako dira errentan edo azalera-eskubidearekin, nola eta Udalak jabetza osoarekin lagatzea ahalbidetzen ez duen, aukera hori ezartzen duen berariazko akordioaren edo hitzarmenaren bidez, bideragarria gerta dadin udalerrinari interesa lekiokkeen sustapena egikaritzea edo jendeari etxebizitza emateko betebeharra betetzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, beste administrazio batzuk, horien entitate instrumentalek edo kooperatiba edo enpresa pribatuek, horienak diren sailetan, sustatutako UETak jabetza osoarekin laga daitezke, nola eta beste gauzaren bat xedatzen ez den lurzoruaren kalifikazio urbanistikoaren aginduz edo Udalarekin sinatutako hitzarmena dela medio.

*8. artikulua. Udal etxebizitza tasatuaren onuradunen eskakizuna: Etxebizitza-beharra.*

UETen onuradunak dira Autonomia Erkidegoko araudiaren arabera halako etxebizitzak eskuratzeko kontratuen titular izan daitezkeen pertsona edo bizikidetzaren guztiak (ikusitako babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurri buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuko 15. art.) eta guztiak bete beharko dute beste etxebizitzarik ez edukitzeko eskakizuna, ez jabetzan, osoan edo azalera-eskubidean, eta ez biziarteko gozamenerako eskubide errearen arabera, eta hori etxebizitza-beharra definitzen duen Autonomia Erkidegoko araudiak xedatutako baldintzetan eta salbuespenekin edo onuradunaren etxebizitzak Asteasuko Arau Subsidiarioek etxebizitzaren inguruan ezartzen duten gutxieneko programako baldintzetara iristen ez den kasuetan izan ezik.

Ez jabetzan, osoan edo azalera-eskubidean, eta ez biziarteko gozamenerako eskubide errearen arabera beste etxebizitzarik ez izateko eskakizun hau Udal Etxebizitza Tasatuen sustapen bakoitzean salbuetsi daiteke Asteasu udalerrian Udal Etxebizitza Tasatu baten jabe direnentzat, jabetza osorik edo azalera-eskubidearekin dutela. Kasu horietan, Babes Publikoko Etxebizitzaren titularra Udal Etxebizitza Tasatu baten esleipendun suertatzen bada, hark administrazio eskudunaren esku ipini beharko du Babes Publikoko Etxebizitza, legeek xedatzen dutenaren arabera baloratua izango dena.

3.º Los ingresos máximos ponderados de los beneficiarios de las VTME, calculados conforme a lo dispuesto en la normativa autonómica vasca, no podrán ser superiores al índice 1,3 respecto de los ingresos máximos vigentes para acceder a las VPO de Régimen General.

4.º Los ingresos mínimos ponderados para los beneficiarios de las VTME no podrán ser inferiores a los ingresos máximos establecidos para acceder a las viviendas sociales (VPO de Régimen Especial).

*Artículo 7. Formas de promoción y cesión de la vivienda tasada municipal.*

Las VTM de Asteasu, cualquiera que sea su clase, podrán ser promovidas por el Ayuntamiento o por empresas públicas o privadas a las que el Ayuntamiento ceda el derecho de superficie para su construcción, por otras Administraciones públicas o sus entes instrumentales y por cooperativas o empresas privadas en terrenos de su titularidad.

La cesión de las VTM promovidas por el Ayuntamiento o por empresas públicas o privadas a las que el Ayuntamiento ceda el derecho de superficie para su construcción, se realizará en arrendamiento o propiedad superficiaria, salvo que el Ayuntamiento posibilite la cesión en plena propiedad mediante acuerdo expreso o mediante convenio que establezca dicha posibilidad, a los efectos de hacer viable la ejecución de la promoción o de satisfacer obligaciones de realojo que sean de interés municipal.

Las VTM promovidas por la Administración de la Comunidad Autónoma Vasca u otras Administraciones o sus entes instrumentales y por cooperativas o empresas privadas en terrenos de su titularidad podrán ser cedidas en plena propiedad, salvo que por imperativo de la calificación urbanística del suelo o por convenio con el Ayuntamiento se hubiera establecido otra cosa.

*Artículo 8. Requisito de necesidad de vivienda de los beneficiarios de la vivienda tasada municipal.*

Todos los beneficiarios de una VTM, entendiéndose por tales la totalidad de las personas o unidades convivenciales que conforme a la normativa autonómica puedan ser titulares de los contratos de acceso a estas viviendas (ver art. 15 del Decreto 39/2008, de 4 de marzo sobre régimen jurídico de viviendas de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo), deberán cumplir el requisito de no disponer de otra vivienda, bien en propiedad, plena o superficiaria, bien por derecho real de disfrute vitalicio, y ello en los términos y con las salvedades establecidas en la normativa autonómica que define la necesidad de vivienda o salvo cuando la vivienda de la que dispongan no alcance las condiciones del programa mínimo de vivienda establecido en las Normas Subsidiarias de Asteasu.

Este requisito de no disponer de otra vivienda, bien en propiedad, plena o superficiaria, bien por derecho real de disfrute vitalicio podrá ser excepcionando en cada promoción de Viviendas Tasadas Municipales para aquellas personas titulares bien en propiedad, plena o superficiaria de una Vivienda de Protección Pública en el Municipio de Asteasu. En estos supuestos el titular de la Vivienda de Protección Pública, en caso de que resulte adjudicatario de una Vivienda Tasada Municipal, deberá poner a disposición de la Administración competente la Vivienda de Protección Pública, que será valorada de acuerdo con lo legalmente estipulado.

Bizikidetzta-unitateko kideetako bat, gutxienez, adinez nagusia izango da. Ez da bizikidetzta-unitatetzat hartuko adiskidetasun edo komenientziatzko arrazoiengatik sortutakoa, etxebizitzaren titularkideek adinez nagusi diren bizikidetzta-unitateko kide guztiek izan beharko dute, lerro zuzeneko ondorengoak izan ezik.

*9. artikulua. Bizilekua edo lana Asteasu udalerrian izateko eskakizuna.*

UET baten onuradun izateko, Ordenantza honetako 8. artikulua xedatutakoa betetzeaz aparte, bizikidetzta-unitateko kideetako batek ondorengo eskakizun hauetakoren bat, gutxienez, bete beharko du:

a) Asteasun ohiko bizilekua izatea eta erroldatua gutxienez 3 urtez jarraian edo azken 10 urteetan gutxienez 5 urtez jarraian egotea.

b) Asteasun azken 5 urteetan lan egin izana.

c) Asteasun azken 3 urteetan lan egin izana eta ohiko bizilekua eduki izana eta erroldatua egon izana azken 15 urteetan gutxienez 5 urtez.

d) Asteasun, erroldatuta egonik, 15 urtez bizi izana eskaera egin duenaren bizi osoan.

UETA errentan hartzeko, eskakizuna izango da Asteasun ohiko bizilekua izatea eta erroldatua egotea eskaeraren aurretik urtebete baino gehiagoz.

*10. artikulua. Kalifikazioa.*

Erregimen Orokorreko Udal Etxebizitza Tasatuaren kalifikazioa nahiz Erregimen Berezikoarena Tokiko Gobernu Batzarren erabakiaren bidez finkatuko da, sustatzailearen eskariz.

Hirigintzako plangintzan erabilera hauetarako espresuki aurreikusitako lurzoruetan sustatzen diren etxebizitzetara behin-behineko kalifikazioa eta eraikitze-lizentzia ematea aldi berean egin behar dira, ez delarik egingo lizentzia eskatzen ez bada edo kalifikazioa bidezkoa ez bada.

Behin-behineko Kalifikazioa izeneko dokumentuan, etxebizitza bakoitzaren salmenta-prezio maximoa finkatuko da, etxebizitzari lotutako (egonez gero) garajearekin eta trastelekuarekin batera.

Lehen erabilera hirigintza-lizentzia lortzeko, ezinbesteko baldintza izango da aurrez edo aldi berean eta sustatzailearen eskariz, Erregimen Orokorreko edo Erregimen Bereziko UETaren behin betiko kalifikazioa lortzea, etxebizitza Behin-behineko Kalifikazioko zehaztapenen arabera egin dela egiaztatatu beharko delarik.

Hirigintzako plangintzan espresuki erabilera hauetarako aurreikusitako lurzoru ez kalifikatuetan sustatzen diren etxebizitzak UET moduan kalifikatu ahal izango dira, edozein unetan, eta, kalifikazioa behin lortuta, haien erregimen juridikoa aplikatu ahal izango zaie. Kasu honetan, Administrazio autonomikoak Babes Ofizialeko Etxebizitza Tasatuentzat (BOET) ezarritako eskakizun teknikoak eta diseinuzkoak edo, bestela, Erregimen Orokorreko BOEei eskatzen zaizkienak ez betetzea ez da eragozpen izango kalifikatzeko.

*11. artikulua. Udal etxebizitza tasatu kalifikatzearen ondorioak.*

